



6. zenbakia

# geurien

## euskera hitzarmena



Argazkia: Gotzon Garaizabal

### MAITATU, IKASI, ARI... EUSKALAKARI

Trebiñutik Donostiara joango da apirilaren 7tik 17ra bitartean. Durangaldera apirilaren 14an helduko da Korrika. Elorrion 04:15 inguruan sartuko da Atxondotik.

<b>Lau hitzarmen berri Geurien egitasmoaren barnean!</b> .....	2.or.
<b>Ikasturte berria, asmo berriak</b> .....	3.or.
<b>Euskarak gora egin du Elorrioko komertzioetako erakusleihoetan</b> .....	4.or.
<b>Japiko dendariei elkarrizketa</b> .....	5.or.

<b>Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko kideei elkarrizketa</b> .....	6.or.
<b>Korrika</b> .....	7.or.
<b>Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal-araudia</b> .....	8.or.
<b>Segapotoen mezu sekretuak</b> .....	8.or.

# LAU HITZARMEN BERRI GEURIEN EGITASMOAREN BARNEAN

2011. urtean dagoeneko lau sinatzaile berri hurreratu dira Geurien hitzarmenera:

- Cheima fruta-denda
- Habixe elkarte
- Ortuburu elkarte
- Lajwad Elorrioko Sahararen Lagunen Elkarte



Cheima dendako langileak.

## Cheima

Berio-Otxoa kalean zabaldu den denda berria da. Bertan hiru lagunek egiten dute lan, bi aljeriarrek eta marokoar batek. Euskaraz ez badakite ere, aurrerantzean ahalegina egingo dute sortzen dituzten kartelak euskaraz ere jartzeko.

Duela bizpahiru urte eratu zen eta bost emakumek osatzen dute. Euren helburua haurdunaldi, erditze eta hezkuntza naturala sustatzea da. Horretarako, topaketak eta ikastaroak antolatzen dituzte. Esate baterako, apirilaren 16-17an Haurraren Arimaren Zaintzari buruzko ikastaroa antolatu dute, Cristobal Gutierrezen eskutik. Euskaraz edo ele bietan funtzionatzeko joera dute, nahiz eta ahozkoan gaztelaniarako joera ere nabari den. Ikastaroei dagokionez, hizlariaren arabera hautatzen da hizkuntza, baina beti saiatzen dira euskarari ere tokia egiten.

## Habixe

## Ortuburu

55 bazkidez osatutako elkarte gastronomikoa da. Txapelketak ere antolatzen dituzte, mus edo pilota-txapelketak kasu. Euskararen presentzia eta erabilera zaindu ohi dute elkartearen, eta euskaraz eta gaztelaniaz egin ohi dute idatzizko jarduna.

# Lajwad Elorrioko Sahararen Lagunen Elkarte



2011. urtean sortu da, eta bere xedea herri saharaiaren aldarrikapenekin bat egin eta euren helburak lortzeko zereginetan laguntzea da. Horren barruan egongo litzateke, esaterako, udalarekin batera Oporrak Bakean programa kudeatzea.

Lau kide berri hauekin, dagoeneko 51 dira euskararen aldeko konpromisoa adierazi duten Elorrioko establezimenduak eta 43 elkarteak. Zuk ere egitasmo honekin bat egin nahi baduzu, edo Elorriion taberna, komertzio edo zerbitzu-enpresaren bat irekitzekotan bazara, jar zaitez gurekin harremanetan, honako telefono edo helbide elektronikoen bidez:

## Elhuyar Aholkularitza:

Tel.: 94 466 88 16

e-maila: [ainara@elhuyar.com](mailto:ainara@elhuyar.com) / [oihana@elhuyar.com](mailto:oihana@elhuyar.com)

## Udal Euskara Zerbitzua:

Tel.: 94 682 01 64

e-maila: [euskara@elorrio.net](mailto:euskara@elorrio.net)

En el año 2011 se han adherido al acuerdo Geurien 4 nuevas asociaciones y establecimientos: la frutería Cheima, la asociación Habixe (cuyo objetivo es promover el embarazo, parto y crianza natural), la asociación gastronómica Ortuburu y la asociación Lajwad Elorrioko Sahararen Lagunen Elkarte. Con estos cuatro, ya son 51 los establecimientos y 43 las asociaciones que han mostrado su compromiso con el euskera a través de este convenio. Si tú también quieres participar o si tienes intención de abrir un nuevo bar, comercio o empresa de servicios en Elorrio, no dudes en ponerte en contacto con nosotros/as.

## IKASTURTE BERRIA, ASMO BERRIAK

Ikasturtea amaitzean dugu, eta dagoeneko ekin diogu datorren ikasturterako lan-ildoak jorrateari. Hona hemen Geurien hitzarmenaren barruan 2011-2012 ikasturtean izango ditugun egitekoak:

- Bezeroen eta, beraz, herritarren sentsibilizazioa lantzeko ekintzak antolatzea, herriko komertzioetan euskara erabiltzera bultzatzeko.
- Konpromisoak betetzeko kanpaina zehatzak diseinatu eta martxan jartzea.
- Merkatari, ostalari eta zerbitzu-enpresetako langileentzako euskara-ikastaroak antolatzea, haien beharrei erantzuteko.
- Herrian irekitako komertzio eta elkarte berriekin harremanetan jartzea hitzarmenaren berri emateko.
- Orain arte hitzarmena sinatu duten eragileei jarraipena egitea, konpromisoen betetze-maila nolako den ikusteko.
- Aholkularitza eta itzulpengintza-zerbitzua eskaintzen jarraitzea.



**geurien**  
euskera  
hitzarmena

Con el comienzo de la primavera, hemos puesto la mirada en el curso que viene y he aquí algunas de las líneas de acción que desarrollaremos en los próximos meses: organizar actividades para sensibilizar a la clientela de Elorrio y, por tanto, impulsar a que utilice más el euskera en el comercio, diseñar y poner en marcha campañas concretas, realizar el seguimiento a las entidades ya firmantes o extender el convenio Geurien a nuevos establecimientos.

# EUSKARAK GORA EGIN DU ELORRIOKO KOMERTZIOETAKO ERAKUSLEIHOETAN

Azken urteetan bezala, 2011ko otsailean ere ikuskaritza egin dugu Elorrioko hainbat komertziotan, errotulazioa zein hizkuntzatan dagoen aztertzeko asmoz. Guztira 123 komertzio aztertu ditugu eta horietako %83 Geurien hitzarmenaren sinatzaileak izan dira.

Hona hemen ikuskaritzaren ondorio nagusiak:

- Euskararen erabilera %10-15 egin du gora errotulu nagusi eta kartel iraunkorretan. Arrazoi nagusia honakoa da: ireki diren establezimendu berrietan euskarazko kartel eta errotuluak ipini dira. Aldi baterako kartelei dagokionez, berriz, erabilera jaitsi egin da. Dena den, komertzioen gehiengoak ez du aldi baterako kartelik erabiltzen, eta daudenetan bi hizkuntzen presentzia antzerakoa da.
- Euskaraz edo ele bietan dauden errotuluek gaztelaniazkoek baino pisu handiagoa dute. Ikuskatutako komertzioen erdiek euskaraz edo ele bietan dute euren errotulu nagusia, laurdenak gaztelaniaz, eta gainerako laurdenak ez du errotulurik edo hizkuntzaren ikuspegitik neutroa da errotulua. Kartel iraunkorrei dagokienez, komertzioen erdiek ez dute kartel iraunkorrik, herenak euskaraz edo ele bietan dute eta %19ak, berriz, gaztelaniaz. Eta, bukatzeko, aldi baterako kartelei dagokionez, %60ak ez du gisa honetako kartelik bere erakusleihoan; daudenetan, euskara eta gaztelaniaren erabilera antzekoa da.
- Geurien hitzarmena sinatu dutenen artean, euskararen erabilera apur bat altuagoa da gainerako komertzioetan baino.
- Kartel iraunkor eta aldi baterako kartelen erabilera nahiko baxua da Elorrioko, %53 eta %39 hurrenez hurren. Hori dela eta, datorren urteko ikuskaritzarako Elorrioko komertzioetako joera hori kontuan hartuko dugu.

Dena den, gaztelania hutsezko errotulu eta kartelak ere badaude ikuskatutako establezimenduetan, eta horietako asko hitzarmenaren sinatzaileak dira. Egoera hori hobetzeko neurriak eta ekintzak landuko ditugu hurrengo hilabeteetan.



Al igual que en años anteriores, en febrero de 2011 hemos realizado una auditoría en los comercios de Elorrio, con el fin de analizar el paisaje lingüístico. En total hemos analizado 123 comercios, de los cuales el 83% ha firmado el convenio Geurien.

La presencia del euskera ha subido un 10-15% en los rótulos principales, debido a que los nuevos establecimientos han optado por esta lengua a la hora de crear su rotulación. En general, hay un mayor número de carteles en euskera o bilingüe que en castellano, y la presencia del euskera es un poco mayor entre los comercios firmantes del convenio Geurien. De todas maneras, el uso de los carteles permanentes y provisionales es muy bajo y lo tendremos en cuenta para las auditorías futuras.

Por último, recalcar que aún queda trabajo por hacer, ya que algunos comercios firmantes del convenio Geurien tienen sus carteles únicamente en castellano.



# JAPIKO DENDARIEI ELKARRIZKETA

## Noiz eta zertarako sortu zen Japi?

1996. urtean zabaldu genuen denda. Gure helburua da Elorrioren moda bultzatzea eta Elorriora beste herrialde batzuetako moda berria ekartzeta. Gaur egun, 2 langile ari gara lanean. Eta horretan gabilta poz-pozik.

Elorrioko herritarrez gain, alboko herrietako jendea ere gerturatzen da gure dendara kanpaina bakoitzean, gure proposamen berriak ezagutzera.

## Zeintzuk dira azken tendentziak moda kontuetan?

2011ko udaberrian kolore biziek izango dute arrakasta handiena: gorria, berdea eta fuksiak... Hala ere, kolore gordinak eramaten ere jarraituko dugu. Estantpatuak are agotu egingo dira denboraldi berrian. Bestalde, soinekoen gainetik gerrikoak erabiltzen jarraituko dugu. Prakei dagokionez, betiko *denimez* aparte, *acid jeans* motakoak nagusituko dira. Laburbilduz horiek izango dira moda joerak.



Japi dendako langileak.

Oro har, Japi eskaintza zabala daukagu, adin ezberdinetako bezeroentzat.

## Zein da zuen espezialitatea?

Gure bilduma guztiak, bezero bakoitzari egokitu eta prenak norberari pertsonalizatzen saiatzen gara.

## Euskara modan dago Elorrioren?

Bai, beti egon da modan.

Elorrio herri euskaldun-euskalduna da. Gure ingurunean, behintzat, euskara asko erabiltzen da. Dendara datozen bezeroen %80 euskalduna da eta gu beti saiatzen gara gure bezeroekin euskaraz hitz egiten.

Japi es un comercio que abrió sus puertas en 1996. Su principal objetivo es promover la moda en Elorrio y traer al municipio la moda de otros lugares.

Ana e Izaskun comentan que el euskera siempre ha estado de moda en Elorrio. Es un municipio muy euskaldun. El euskera se utiliza mucho en su entorno. El 80% de la clientela sabe euskera y Ana e Izaskun intentan relacionarse siempre que pueden en esta lengua.

# EUSKADIKO LAGUNTZA TXAKURREN TALDEKO KIDEEI ELKARRIZKETA

*Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea ofizialki 1983an sortua izan arren, sortzaileak 1979 urtetik ari ziren jada txakurren heziketa eta kirol-lehiakortasunaren munduan ikasten eta lanean. Taldea txakurrekin lan egitea gogoko zuten 12 lagunek sortu zuten.*

*Urte hauetan guztietan, gizarteari zerbitzu onena emateko asmoarekin, prestakuntza tekniko egokia lortzea da euren helburua. Horretarako, eguneroko ariketak eta talde-entrenamenduak jasotzen dituen lanplangintza garatzen dute, eta horrez gain, urtero, gaitasun-proba egiten dute. Horren bidez ziurtatzen dute, proba gainditzen duten Taldeek salbamendu-lanetan aritzeko nazioarte mailan eskatzen den maila izango dutela.*

## Nola hezten dituzue txakurrak?

Txakurrak arlo ezberdinetan hezten ditugu: obediencia, trebezia eta bilaketa arloak lantzen ditugu beraiekin.

Obediencia-arloan, txakurrak gure esanak ondo eta azkar betetzeko, ulermena lantzen dugu. Trebezia lantzen dugu txakurrak egoera ezberdin, zail eta deserosoetan lan egin dezan.

## Zein hizkuntza erabiltzen duzue horretarako?

Gure txakurrak poliglota direla esan dezakegu. Euskara, gaztelania, alemana, frantsesa... Hainbat hizkuntzetako hitzak erabiltzen ditugu eurei aginduak ematera. Hitz erabilera gidariaren erabakia da, azken batean, txakurrari berdin zaio hizkuntza, hitzak, beti, esanahi berdina badauka. Aginduak motzak eta argiak izatea komeni zaigu eta horren arabera aukeratu bakoitzak hitzak.

## Zergatik webgune berria ([www.gpseuskadi.org](http://www.gpseuskadi.org))? Nolako da bertan euskararen presentzia?

Internet munduan ohikoa den bezala, gure webgunea zahartua ikusten genuen. Lau-bost urte dela sortu genuen eta, jada, itxura eta edukia aldatzeko beharra ikusi dugu. Beraz, otsailaren bukaeran webgune berria argitaratu dugu eta iritsi zaizkigun iruzkinen arabera, onarpen oso ona izan du.

Webgunea hiru hizkuntzatan dago eta hemendik aurrera eguneratzerakoan hiru hizkuntzak mantenduko ditugu. Euskara eta gaztelaniaren erabilera derrigorrezkoa iruditu zaigu eta ingelesa kanpo-harremanetarako garrantzitsua da. IRO (International Rescue Dog Organisation) deritzon erakundearen kide gara eta, bertan, hizkuntza ofiziala ingelesa da.

El Grupo de Perro de Salvamento de Euskadi se creó oficialmente en 1979. Tiene como objetivo ofrecer formación técnica para poder proporcionar el mejor servicio a la sociedad. La asociación trabaja con los perros en diversos campos: obediencia, habilidades y ámbitos de búsqueda.

Los perros son políglotas ya que reciben las órdenes en euskera, castellano, alemán, francés,...

La asociación acaba de renovar la página web ([www.gpseuskadi.org](http://www.gpseuskadi.org)). Su contenido está en euskera, castellano e inglés.





# MAITATU, IKASI, ARI... EUSKALAKARI

Iritsi da Korrika 17! Trebiñutik Donostiara apirilaren 7tik 17ra bitartean milaka euskalakari batuko ditu Korrikak. Durangaldera apirilaren 14an helduko da Korrika (goizaldean, asteazkenetik eta ostegunera bitarteko gauean). Elorrión 04:15 inguruan sartuko da Atxondotik. Herrian zortzi kilometroko ibilbidea dauka eta Elgetan gora Gipuzkoarantz jarraituko du.

Hona hemen apirilaren 13ko egitaraua:

- 14:45ean Korrika Txikia plazatik hasita. Ondoren, txokolatea, jolasak, bertsoak, musika...
- 04:15ean Korrika Elorriora helduko da
- 05:30ean Berakatz-zopa



Euskal Herrian bizi dena euskal herritarra bada eta euskalduna euskaraz dakiena, nola deitu behar diogu euskara maitatu, ikasi eta erabili egiten duenari? Nola, euskaraz bizi denari?

AEK-k eta Korrikak horiei guztiei izena ipini nahi diete Korrika 17rekin: euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena, EUSKALAKARIA da:

Euskalakaria da lehenengo hitza euskaraz egiten duen dendaria

Euskaraz sortzen duen artista

Euskaraz diharduen lantegiko enpresaria

Euskara sustatzen duen herritarra

Euskararen aldeko neurriak hartzen dituen herri-ordezkarria

Euskaraz lan egiten duen kazetaria, kirolaria, iturgina...

Euskalakaria da hitz egin ez baina ulertzen duenari euskaraz egiten diona

Euskalakaria da ikasten ari dena, eta ikasten ari denarekin mintzo dena

Euskalakaria da haurrari dakien beste euskara egiten dion gurasoa

Euskalakaria alaia da

Euskalakaria baikorra eta ekintzailea da

Euskalakaria bizizalea da

Euskalakaria naiz ni

Euskalakaria haiz hi

Euskalakaria da bera

Euskalakariak gu gara

Euskalakaria zara zu

Euskalakariak zuek zarete

Euskalakariak haiek dira



La Korrika llegará al Duranguesado el 14 de abril (en la madrugada del miércoles al jueves). Entrará en Elorrio hacia las 04:15, viniendo desde Atxondo. Realizará un recorrido de 8 km. en Elorrio y continuará hacia Gipuzkoa subiendo por Elgeta.

Este es el programa para el día 13 de abril:

- 14:45 Korrika Txikia - Saliendo de la plaza. A continuación, chocolate, juegos, versos, música, ...
- A las 04:15 la Korrika llega a Elorrio.
- A las 05:30 Sopa de ajo.

# EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA NORMALIZATZEKO UDAL ARAUDIA



Argazkia: Gotzon Garaizabal

Elorrioko Udalak Euskararen Ordenantza landu eta aho batez onartu berri du. Aurreko ordenantza 1999 urtekoa zen eta hura oinarrian hartuz landu da berria. Udaleko Euskara Batzordeak izan du Ordenantza berriak lantzeko ardura.

Ordenantzak bai administrazioan bai udalerrian ere euskararen erabilera gehitzeko hartu beharreko neurriak arautzen ditu.

Ordenantzetan jasotzen da, esate baterako, herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarteetan euskararen erabilera indartzeko helburua duela Elorrioko Udalak eta, hortaz, laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko diela Euskara Zerbitzuaren bitartez; esate baterako, testu laburrak euskaratzeko eta zuzenketak egiteko, diru-laguntzen inguruko aholkularitza emateko eta abar.

Udalaren euskararekiko konpromisoa argia da eta udalerriko elkar-teeke ere euskara gehiago erabiltzeko urratsak emateko ahaleginean jarraitu beharko lukete.

El Ayuntamiento de Elorrio ha aprobado por unanimidad el Reglamento Municipal para Promover y Normalizar el Euskera. La ordenanza ha sido realizada por la Comisión de Euskera y ha tenido como base la anterior ordenanza, del año 1999.

## SEGAPOTOEN MEZU SEKRETUAK

(Mantxut <http://www.argia.com/mantxut/>)

=:o	Asto	>:x	Untxi
\$	Dirua	>=:c:>	Arrain
(.(	Ipurdi	O~	Zapaburu
(@_@)	Harritura nago, zur eta lur	[ ]	Ontzi
(OvO)	Hontza	] = 0	Idi, zezen
*<):o)	Pailazo	^..^	Txerri
*o*	Lotsatuta. Hau lotsa!	^ ^;;	Izerditan
3}	Komuna	{	Besarkada
3} pp	Komuneko papera	}>:-	Aker, deabru, demonio
:#)	Mozkor	}}{	Tximeleta
:-&	Muturroker!	}}{	Musua
:-x	Isilik! Ixo!	°} {°	Berriketan
:=)	Sudurluze	Ö, / ^x^	Katu
<	Handi	- :-)	Txapeldun!
<+	Handiago	;-(-	Ze pena! ( negarrez )
<: 3----	Arratoi, sagu	:-)	Pozik nago / kar-kar
>:^(	Aspergarri	:-:)	Gezurti!
<°))))><	Arraina	;-)	Keinutxo hau zuretzat
mz	Maite zaitut	:-@	Arraioa!
mlskr	Mila esker	}=3	Zezena